# PRENTSA OHARRA

## Beharra duten pertsona autonomoei Etxeko Laguntza Zerbitzuan murrizketarik ez aplikatzeko eskatu dio Agurainek Arabako Foru Aldundiari

Gizarte Zerbitzuen Sailak emandako jarraibide baten arabera, hemendik aurrerako eskatzaile berriei ez zaie eskainiko gaur egun ia Arabako ehun pertsonari eskaintzen zaien 3 orduko zerbitzu hori.

Agurain. 2024-03-22. Gaur egun, Agurainen, menpekotasun arriskua duten edo oraindik autonomoak diren 23 pertsonak dute Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, asteko hiru ordukoa. Hala ere, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen sailak jarraibide bat igorri die Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei, arreta-orduak aldatzeko. Hala, 0 gradurako (pertsona autonomoak edo menpekotasun arriskuan daudenak), salbuespenezkoa izango da, eta ez zaio erabiltzaile gehiagori eskainiko.

Egoera hori ikusita, Aguraingo Udalak mozio bat onartu zuen atzo osoko bilkuran. Bertan, Arabako Foru Aldundiari eskatzen zaio instrukzio hori indarrik gabe uzteko autonomoei eskaintzen zaien zerbitzuari dagokionez. Izan ere, mendekotasun-arriskuan dagoen erabiltzaileari etxean egoten laguntzen dion oinarrizko zerbitzua da, eta etxeko laguntza zein laguntza pertsonala eskaintzen dizkio. Azken batean, bere etxean egoteko eta komunitatean integratzeko aukera ematen dio, isolamendu-egoerak saihestuz.

Baina, horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren jarraibide honek agerian uzten du landa eremuan zerbitzu gutxiago eskaintzen direla. Izan ere, Gasteizen bizi diren arreta hori ematen jarraituko da.

alkatea.raul@agurain.eus

AGURAINgo UDALA

## NOTA DE PRENSA

# Agurain reclama que la Diputación Foral de Araba no aplique recortes en el Servicio de Ayuda a Domicilio a las personas autónomas

Una instrucción del departamento de Servicios Sociales de Diputación ha determinado que no se ofrezca más este servicio de 3 horas semanales que ahora se presta a casi un centenar de personas en Araba

Agurain 2024-03-22. En la actualidad, un total de 23 personas autónomas cuentan con un Servicio de Ayuda a Domicilio de tres horas por semanas en Agurain. Sin embargo, el departamento de Servicios Sociales ha remitido una instrucción a los Servicios Sociales de Base de la Diputación Foral de Araba para modificar las horas de atención. Así para los grados 0 (personas autónomas) pasará a ser excepcional y no se ofertará de forma automática a ninguna persona usuaria más, salvo en casos de gran excepcionalidad, alta vulnerabilidad o exclusión social.

A la vista de esta situación, el Ayuntamiento de Agurain aprobó ayer en pleno una moción en la que se insta a la Diputación Foral de Araba a dejar sin efecto esa instrucción en lo que hace referencia al servicio que se ofrece a las personas autónomas. No en vano, se trata de un servicio básico que ayuda la persona usuaria en situación de riesgo de dependencia a permanecer en su domicilio, ofreciéndole ayuda doméstica y personal que, en definitiva, permite que se desenvuelva en su hogar y se integre en su entorno comunitario evitando así situaciones de aislamiento.

Pero además, esta instrucción de la Diputación Foral de Araba supone un agravio comparativo con las personas autónomas que residen en Gasteiz, donde se seguirá prestando esta atención.

alkatea.raul@agurain.eus